



XVII. TOPAKETAK

Emaitzak biltzen dituen
dokumentua

“MECren Hezkuntza lege berriaren azterketa”

Bilbon 2004ko azaroaren
18-19eta 20

1. AURKEZPENA

SAREAN Elkarteak urtero, bi Topaketa antolatzen ditu; 2004ko azaroaren 18, 19 eta 20an Bilbon burutu diren hauek XVII.ak izan dira.

Ekitaldi hauetan Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan zuzendaritza eta antolakuntza lanetan aritzen diren pertsonak bildu dira iragarritako gaiaren inguruan eztabaidatzeko eta adostutako proposamenak egiteko.

Aldi honetan, Espainako Gobernuak hezkuntza-marko berriaren aurrean estatu mailan eztabaidatzeko proposatu duen "*Una educación de calidad para todos y entre todos*" dokumentua izan da aztegia eta txosten honetan lan horren ondoren adostutako proposamenak biltzen dira.

Gaia aukeratzerakoan bi argudio garrantzitsu hartu ziren kontuan:

- Gai hau, ikastetxetara bidalitako aztergai posibleen zerrendan, aukeratuenen artean zegoela.
- Hezkuntza Sailak abenduaren 16 eta 17an antolatutako foroetara SAREANen iritzi adostua eramateko lana burutzea.

Eztabaidaren antolaketa

Lan hau osatzeko, MEC-ren "*Una educación de calidad para todos y entre todos*" legearen zirriborroak dituen 82 proposamenetatik Haur eta Lehen Hezkuntzarekin zerikusia duten 49ak aztertu dira.

Oinarrizko dokumentuak, izenburu berezia duten 14 kapitulutan banatzen ditu proposamen guztiak; hemen aurkezten den lanean atal bakoitzeko izenburua mantendu da baina beste bloke handiagoen barruan, lau kapitulu nagusi osatuz:

1. Hezkuntza beharrak: ikasteko eragozpenak, aniztasuna, etorkinak.
2. XXI. mendeko erronkak: IKT, eleaniztasuna, hizkuntza trataera, baloreak, erlijioa.
3. Ikastetxeak: autonomia, proiektuak, zuzendaritza eta ibilbidea (0-3 zikloa).
4. Ebaluazioa eta formakuntza: Ikastetxeak, irakasleak eta ikasleak.

Topaketetako partaideak lau taldetan banatu dira eta talde bakoitzak aurreko bloke bat jorratu du ondoko metodologiari jarraituz:

- Balorazio koantitatiboa: 1etik 5era doan eskalan item bakoitzarekiko adostasun-maila adierazten.

- Balorazio koalitatiboa: item bakoitzari buruzko zehaztasunak, mugak, baldintzak edo beste ñabardurak gehitzen.

Talde bakoitzeko proposamenak bateratze-lanaren ondoren osatu eta onartu egin dira.

Txosten honetan beraz, SAREANen XVII, Topaketetako emaitzak biltzen dira, talde bakoitzaren berezitasunak aipatuz eta proposamen nagusiak azpimarratuz.

Bi eranskin gehitzen dira:

1. Balorazio numerikoen taulak.
2. Testuari egiten zaizkion zehaztapenak

Lehen eranskinean baloratuta agertzen diren proposamenen identifikazioa errezteko asmoz, eranskin honen ondoren taula bat gehitzen da non Topaketetan erabilitako zenbaketa eta oinarritzko dokumentuarena ("Una educación de calidad para todos y entre todos") erlazionatzen diren.

2. LANTALDEEN IRITZIAK

2.1. Hezkuntza beharrak: ikasteko eragozpenak, aniztasuna, etorkinak.

a) Ikaste-arazoaren prebentzioa Lehen Hezkuntzan

Adostasun handia prebentzioari dagokionez, lehenbailehen hartu beharreko neurria da; gaur eguneko sisteman ikusten den akatsa horixe baita, askotan neurriak jartzen direnerako denbora gehiegi galdu dela. Edozein kasutan ere ikastetxe bakoitzak bere antolakuntza egiteko autonomia izan behar duela eta baliabideak (giza baliabideak eta tokia) ezinbestekoak direla argi ikusten da.

Hobekuntzako bidean ebaluazioa beharrezkoa da eta Lehen Hezkuntzako 4. mailan proposatzen den frogarekin adostasuna azaldu da baina zalantza ugari azaldu da froga motari buruz, emaitzen erabilerari buruz etab. Puntu honetan zehaztasunak egin behar dira, interesgarria ikusten da ziklo bakoitzaren amaieran ebaluazio bat egotea, froga ereduak eskoletara bidaltzea ikasle mota kontuan hartuz egokitzapenak egiteko eta emaitzen arabera baliabideak ematea eta plangintza antolatzea proposatzen da. Era berean Lehen Hezkuntzaren bukaeran ikasle bakoitzari buruz egiten den informea osatzeko, Administrazioak bidalitako ereduak oinarri bezela harturik eskola bakoitzak berea egitea ikusten da egokiena.

Ikasturtearen errepikapena baino lehen beste neurri batzuk bultzatu behar dira: diagnostiko goiztiarrak egiteko prozesua arintzea, maila desberdinetako ikasleekin lan egiteko erak ikastea edo garatzea eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloa bereziki zaintzea, mimatzea, ratioak jaitsez, eta talde malguak etab. egiteko baliabideak jarritz. Dena dela errepikatzea ezinbestekoa denean ondo aztertu behar da noiz den momenturik egokiena.

Ikastetxe eta familien arteko harremana eta konpromezua ikasleen heziketan garrantzi handiko arloa da eta gehienetan holan ulertzen du hezkuntza komunitateak baina kasu batzuetan ikastetxearen ahalegina hutsean geratzen da; holako kasutan udal ongizate zerbitzuen hurbiltasuna behar beharrezkoa da.

b) Aukera eskubide gisa eta aniztasuna balore bezala

Aurreko izenburupean aurkezten diren proposamenekin adostasun maila handia adierazi da batez ere diru publikoak sostengatutako ikastetxe guztiek, etorkinak, etnia desberdinetakoak edo behar bereziak dituzten ikasleen eskolatzeko prozesua erreztzeko duten erantzukizunari dagokionez; argi geratu da gaur egungo egoera oso bestelakoa dela eta ikastetxe publikoek zamarik handiena eramaten dutela, besteok ikasleak aukeratzeko bideak lasai asko hartzen dituzten bitartean.

Bidezkoak diren proposamen hauek errealitatea bihurtzeko hainbat oztupo gainditu beharrean gaude: ikastetxeetan plazarik ez edukitzea, hizkuntza ereduak, kuota, erlijioaren irakaskuntza konfesionala, gurasoen informazio eza etab.

Oso garrantzitsua ikusten da legea bete dadin egin beharreko kontrola, arlo honetan ikuskaritzaren papera azpimarratuz.

Behar hauei erantzun egokia emateko hutsune handiak daude, nagusienak formakuntza eta baliabideak direlarik. Administrazioak ikastetxeek bizikidetzara eta kultur aniztasunerako planak osa ditzaten, ereduak banatu beharko lizkieke irakasleriaren formakuntza bultzatuz. Arrazoi desberdinak direla medio, arazoak dituzten ikasleak gizarteratzeko, Administrazioen konpromisoa ezinbestekoa da, eskolatik kanpoko programekin beren heziketan agertzen diren hutsuneak ahalik eta hobekien betetzeko.

Topaketetako partaideen iritziz oso neurri egokia da zonalde batzuetako eskola eta irakasleak positiboki diskriminatzea baliabide gehiago eta beste abantaila batzuk eskainiz.

2.2. XXI. mendeko erronkak: IKT-ak, eleaniztasuna, Hizkuntza trataera, baloreak, erlijioa.

a) XXI. Mendeko alfabetoa: atzerriko hizkuntza eta teknologia berrien sarrera goiztiarra

Mende berriaren erronkei buruz etengabeko informazio eta presioa jasotzen ari gara baina gure iritzia plazaratzeko aukera gutxi daukagu; bloke honi Topaketetan eman zaion puntuazioak argi eta garbi adierazten du XXI. mendeko ikastetxeen proposamena: baietz baloreak, eleaniztasun eta teknologia berrien garapenari eta ezetz borobila erlijioen irakaskuntza konfesionalari.

Elebitasun edo eleaniztasunari dagokienez, oinarritzko datu batetik abiatu da eztabaida, hau da, Erkidegoko ikastetxe publiko guztiak neurri batean edo bestean eleanitzak direla eta etengabeko garapenean aurkitzen direla helburu horren bila jorratu behar diren arloak gero eta gehiago sendotzen. Aurrerapauso

guzti hauek errezteko eta helburuaren arrakasta bermatuko duen tresnarik onena Hizkuntza Proiektua ikusten da, hots, ikastetxe bakoitzak bere egoeran oinarrituta eta behar diren laguntzekin egingo duen Hizkuntza Proiektua, zeinen arabera zaharkituak geratu diren hizkuntza ereduak gainditzeko aukera planteatuko da.

Teknologia berrien arloan gure Erkidegoan dagoeneko emandako pausoak izan dira eztabaidaren abiapuntua eta ikasturte batzuen praktikak ematen duen eskarmentua kontuan hartuz, orain arte egindakoa alperrikoa izan ez dadin, antzinatik egindako proposamenak berritsi dira:

- ✓ Arduraduradunaren figura RPTan sartzea, ekipoen mantenimendua eta berriztapena bermatzea eta material pedagogikoen puntuan editorialak ez aipatzea.
- ✓ Honekin batera, oinarritzko dokumentuan proposamenak egiteko erabiltzen den terminologian Administrazioaren konpromiso zehatzagoa jartzea eskatzen da, anbiguotasunean galdu daitezkeen hitzak edo terminoak aldatuz.

b) Zein balore eta zelako hezkuntza mota baloreak garatzeko

Baloreen garapena ezinbesteko heziketa da gizakientzat eta Hezkuntza Sistema lan horren arduradun nagusia ez bada ere, ikastetxeetan arloari ematen zaion garantizaren lekuko, atal honi emandako puntuazioa da (4,9 batetik bostera doan eskalan). Indar berekin azaldu da "educación para la ciudadanía" gai berriaren aurkako adierazpena (1,8 puntu batetik bostera doan eskalan)

Topaketen partaideen iritziz argi dago baloreak zehar lerro bezala landu behar direla, edozein momentutan, eguneroko bizipenen barruan eta denon erantzukizunarekin.

c) Erlijioen irakaskuntza

Oinarritzko dokumentuan gai honen inguruan planteatzen diren proposamenek puntuaziorik bazuena lortu dute (1,2 eta 1,6 artean batetik bostera doan eskalan) hau da, desadostasunik handiena.

Egokia ikusten da "erlijioen ezagupena" lantzea, kulturaren beste arloak lantzen diren moduan baina Topaketetako partaideen iritzia erlijioen irakaskuntza konfesionalari dagokionez oso argia da, horrek ez du eskolaren betebeharren artean egon beharrik.

2.3. Ikastetxeak: autonomia, proiektuak, zuzendaritza eta ibilbidea (0-3 zikloa)

a) Partaidetza eta zuzendaritza: korresponsabilitatea

Ikastetxeen zuzendaritza eta antolakuntza benetako partaidetzan oinarritu behar direla aho batez aldarrikatzen da eta Eskola Kontseiluak LOCE

legearen aurrean zeuzkan eskumenak berreskuratzea positibotzat jotzen bada ere, gaur egun organo honek duen osaketaren egokitasuna zalantzan jarri da.

Zuzendaritzari dagokionez, garrantzitsua da Topaketen partaideentzat "taldea" kontsideratzea momentu guztietan, formakuntzan, pizgarrietan etabar; oinarrizko testuan kontraesana igertzen da, "dirección colegiada" aipatu arren proposamenak zuzendariaren figura bakarrik hartzen dutelako kontuan.

Zuzendaritza izendatzeko garaian OOGk baloratu behar dituen datuen artean klaustroaren proposamenak izan behar duen garrantzia azpimarratu da eta gaur egun hautagaiak izateko dauden zailtasunak ikusita, bi bide jorratzea proposatzen da:

- Zuzendaritza karguen lan baldintzak hobetzea.
- Ikastetxeetan gai honetaz hausnarketa sakonak bultzatzea.

Kargua hartu baino lehen behar den formakuntza eta gero etengabekoa zein pizgarriak, esan bezala, zuzendaritza-taldeko kide guztientzat proposatzen dira.

Hezkuntzaren etapa guztien arteko koordinazioa puntu garrantzitsua iruditzen zaigu eta ikastetxe publikoetan ahaleginak egiten ari gara hori lortzeko, baina gehienetan oztopoak Administrazioaren aldetik etortzen zaizkigu, beharrezkoak diren baliabideak eta gure ikastetxe eta Haur Eskolak edo Bigarren Hezkuntzakoekin loturak ukatzen. Eskola integralen planteamendua egiteko tenorea noiz helduko zain gaude.

b) Haur Hezkuntzaren izaera

Ziklo hau arautzeko MEC-ren proposamenekin adostasun handia agertzen da Topaketen partaideen artean (4,6 eta 4,9 artean batetik bostera doan eskalan).

Oinarrizko dokumentuan agertzen diren eta gure Erkidegoaren antolakuntzan hutsune nabarmenak diren bi puntu azpimarratu dira: ziklo honek izan behar duen ezaugarriarik aipatuena, bere *karakter hezitzailea* eta beharretara erantzuten duen antolakuntza egiteko ezinbesteko planifikazioa, *zikloaren mapa*. Honez gainera, ondoko zehaztapenak ere egin dira:

- Hezkuntza Sailak bermatu beharko luke behar adina plaza herri edo hiri guztietako ikastetxe publikoetan.
- Kontzertuak izatekotan, planifikazioari lotuta izan beharko lukete eta beti eskola publikoari lehentasuna eman.
- Tarte honetako lehen zikloan, bigarrenak dituen baldintza berberak jarri, hau da, bekak, garraioa...
- Haur Hezkuntzako 2. zikloaren curriculumak ikastetxe bakoitzaren Hezkuntza Proiektuaren arabera antolatzea.

2.4. Ebaluazioa eta formakuntza: ikastetxeak, irakasleak eta ikasleak.

a) Kalitatea eta irakas-lanbidearen balorazioa

Batazbesteko puntuazioak adostasun zabala adierazi arren (3,9 batetik bostera doan eskalan) testuan zehaztasun ugari egin behar dela uste dugu, bai erabiltzen den terminologian baita edukian ere. Adibide bezala esango dugu "condiciones adecuadas", "situaciones de mayor dificultad" terminoak ugariak direla baina ez da zehazten beren esanahia; bestalde irakasleen lanaren baloratzeko ekintzak iragartzen dira baina ez da esaten zelan burutuko dituzten edo zelan neurtuko den irakaskuntzaz kanpokoak diren lanetarako behar den denbora.

Puntu honetako item guztien artean mesfidantza pizten duen batenbat ere badago, ondoko hau bezala:

"El Ministerio de Educación y Ciencia, en colaboración con las Comunidades Autónomas, establecerá un nuevo modelo de carrera docente en la que, sin necesidad de que los profesores abandonen el nivel educativo en el que trabajan, puedan asumir nuevas responsabilidades. El sistema retributivo tendrá en cuenta este modelo. Por otra parte, se impulsará la colaboración del profesorado de secundaria con las universidades en el desempeño de funciones docentes a tiempo parcial. La evaluación de la práctica docente será fundamental para el desarrollo profesional del profesorado y tendrá efectos retributivos."

Erantzukizun berriak zeri deitzen zaion ez dago argi. Txosten honen bigarren eranskinenean MEC-en dokumentuan aipatzen diren terminoen aldaketak ikus daitezke.

b) Autonomia eta ebaluazioa

Ikastetxeen ordezkariak barneko zein kanpoko ebaluazioaren alde agertu dira, beste hainbat alditan legues, berriro aipatu da datu positibo bezala Ikuskaritzaren inplikazioa zeregin honetan eta kanpoko erreferentziak eta informazioa edukitzea biziki estimatzen dela azpimarratu da.

Bestalde autonomia, hitz hutsetan geratzeko arriskua ikusten da, ikastetxeek marko orokor batetan erabaki dezaten, Administrazioaren aldetik baliabiderik jartzen ez badira. Konpromiso hori testuan agertu behar delakoan gaude.

3. PROPOSAMENAK

SAREAN Elkarteak bere XVII. Topaketetako lana burutzeko ondoan agertzen diren proposamenak adostu ditu:

- **Orokorrean**
- Testua zehaztea anbiguotasunetik ihes egin eta Administrazioak hartu behar dituen konpromisoak argi azaldu.
- Kapitulu bakoitzaren garapenean proposatzen diren baliabideak zehaztu eta bermatu.
- Arlo guztietan irakasleriaren formakuntza plan desberdinak bultzatu.

- **Bloke bakoitzari dagozkion proposamenak:**

1. atala. Hezkuntza beharrak: ikasteko eragozpenak, aniztasuna, etorkinak

- Ikasleren batengan beharra igertzen den momentuan prozesua hasi, diagnostiko arina egingo dela bermatuz.
- Lehen Hezkuntzako 1. zikloa bereziki mimitzea, ratioak jaitsiz, baliabideak jarritz etab.
- Ikastetxeetara froga ereduak bidaltzea gero eskola bakoitzak moldatu eta plangintza antola dezan.
- Atzerritarrak, etnia desberdinetakoak eta behar bereziak dituzten ikasleak ikastetxe publiko eta pribatuen artean banatzea, tranparik egiten ez dela ziurtatzeko behar den kontrola jarritz.
- Gizarte eta Administrazio desberdinen arteko konpromisoa, arazo bereziak dituzten ikasleak gizarteratzen laguntzeko programa egokiak antolatuz.
- Behar handiko ikaslegoa hartzen duten ikastetxeen diskriminazio positiboa, baliabide edota beste abantailak eskainiz.

2. atala: XXI. mendeko erronkak: IKT-ak, eleaniztasuna, Hizkuntza trataera baloreak, erlijioa.

- Ikastetxe bakoitzak bere egoeratik abiatuta eta dituen ezaugarriak kontuan hartuz, Hizkuntza Proiektua egitea eta Administrazioak onartutako proiektuak aurrera eramateko baliabideak eta aholkularitza bermatu.
- IKT arloko arduradunaren figura RPTan sartu.
- Ekipo informatikoen mantenimendua eta berriztapena bermatu.
- Eleaniztasuna zein informatika irakasleen formakuntzarekin jarraitu.
- Baloreak zehar-lerro moduan landu MECren dokumentuan proposatzen den gai berria baztertuz.
- Erlijioen irakaskuntza konfesionala curriculumetik atera, bertan erlijioen ezagupen ez konfesionala bakarrik utziz.

3. atala. Ikastetxeak: autonomia, proiektuak, zuzendaritza eta ibilbidea (0-3 zikloa)

- Eskola Kontseiluak LOCE baino lehenago zituen eskuduntzak berreskuratu.
- Administrazioaren benetako konpromisoa, zuzendaritza-arazoari aurre egiteko.
- Ausardia politikoaz jokatu zuzendaritzaren dekretua berritzerakoan.
- Zuzendaritza Talde osoa kontuan hartu, ez bakarrik zuzendaria, egoera guztietan, formakuntza eta pizgarrien kasuetan ere.
- Ikastetxeetan zuzendaritza-arazoari buruzko hausnarketa prozesuak bideratu.
- Ondorengo neurri zehatzak hartu:
 - Kreditazioak, derrigorrezko baldintza bezala, baztertu.
 - Karguan sartu aurretik zuzendaritza taldekideen formakuntza ziurtatu (ikasturteko 3. hiruhilekoan, liberazioaz, irteten den taldearen eskarmentua jasoz...)
 - Pizgarri ekonomikoak hobetu.
 - Hurrengo ikasturte hasierako zirkularrean zuzendaritza eta administrazio zereginetarako denbora erreferentziak kendu.
- 0-3 zikloari buruzko proposamenak:
 - Etapa guztiz hezitzaile kontsideratu.
 - Planifikazio egokia (mapa) lehenbailehen egin.
 - Hezkuntza Sailak eskola publikoetan behar haina plazak bermatu.
 - Kontzertuak egin ezkerreko planifikazioarekin lotu, beti eskola publikoari lehentasuna emanez.

4. atala. Ebaluazioa eta formakuntza: ikastetxeak, irakasleak eta ikasleak.

- Irakasleen formakuntza hasieratik hobetu, Majisteritzatik.
- Ebaluazioa, barrukoa eta kanpoko oso garrantzitsua denez, informazioa eta beste lekuetako erreferentziak eskeini.
- Arlo honetan ere, Ikuskaritzaren inplikazioa beharrezkoa ikusten da.

4. LABURPEN GISA

SAREANen XVII. Topaketetan aztertu den dokumentuarekin (MECren proposamena "*Una educación de calidad para todos y entre todos*") hainbat puntuetan adostasun maila handia azaldu da, LOCE-k ezartzen zuen muga asko

gainditzan direlako, hau da OOGren eta klaustroaren eskuduntzak, Zuzendaritzaren berriztapenerako prozesua etab. Baina dokumentuak dituen zenbait hutsune ere agerian geratu dira, testuaren anbigutasuna arlo garrantzitsuetan: baliabideen aipamenetan, Administrazioaren aldetik behar den konpromiso maila adierazterakoan, hala nola ebaluazio eta formakuntza alorretan.

Adostasun mailari dagokionez, puntuazioaren bi muturretan geratu diren gaiak izan dira deigarrienak. Lehenengoa, erlijioaren irakaskuntza konfesionala, puntuaziorik eskasena lortu duena, ikastetxeetan era batera edo bestera betetzen dena, gaiari buruz sekular ere iritzirik emateko aukerarik izan ez dugun arloa, baina galdera egin den momentuan zalantza izpirik gabe eskolako zeregina ez dela aldarrikatzen da.

Beste muturrean, 0-3 zikloaren antolakuntzaz MEC-ek egiten duen planteamenduak adostasun mailarik handiena lortu du; nonbait, gaur egun Euskadin martxan dagoen zikloaren ezarpenak kontrako bidetik doalako.

XXI. mendeko erronkak, beraz, ez dira bakarrik teknologiak eta eleanistasuna, beste bi hauek ere begira daude.

ERANSKINAK

1. eranskina: MEC DOKUMENTUAREN 49 PROPOSAMENEN BALORAZIO NUMERIKOKA.

Proposamena*	1	2	3	4	5
1. taldea (13): HEZKUNTZA BEHARRAK. IKASTEKO ERAGOZPENAK, ANIZTASUNA, ETORKINAK					
Ikaste-arazoen prebentzioa Lehen Hezkuntzan					
1.1					
1.2					
1.3					
1.4					
1.5					
Aukera eskubide gisa eta aniztasuna balore bezala					
1.6					
1.7					
1.8					
1.9					
1.10					
1.11					

*Sarreran adierazi bezala, hemen agertzen den proposamen-zenbaketa Topaketetan erabilitakoa da. MEC dokumentuaren zenbaketarekin korrespondentzia-taula eranskin honen amaieran agertzen da.

proposamena	1	2	3	4	5
2. taldea (14): IKT, ELEANIZTASUNA, HIZKUNTZA TRATAERA, BALOREAK, ERLIJOA					
XXI. mendeko alfabetoa: atzerriko hizkuntza eta teknologia berrien sarrera goiztiarra					
2.1					
2.2					
2.3					
2.4					
2.5					
Zein balore eta zelako hezkuntza baloreak garatzeko					
2.6					
2.7					
2.8					
2.9					
2.10					
Erljioen irakaskuntza					
2.11					
2.12					
2.13					
2.14					
2.15					

proposamena	2,5		3		4		5	
3. taldea (14): IKASTETXEAK. AUTONOMIA, PROIEKTUAK, ZUZENDARITZA ETA IBILBIDEA (0-3 ZIKLOA)								
Partaidetza eta zuzendaritza: Korresponsabilitatea								
3.1								
3.2								
3.3								
3.4								
3.5								
3.6								
Haur Hezkuntzaren izaera								
3.7								
3.8								
3.9								
3.10								
3.11								

proposamena	3		4		5	
4. taldea (11): EBALUAZIOA ETA FORMAKUNTZA. IKASTETXEAK, IRAKASLEAK ETA IKASLEAK.						
Kalitatea eta irakas-lanbidearen balorazioa						
4.1						
4.2						
4.3						
4.4						
4.5						
4.6						
4.7						
Autonomia eta ebaluazioa. Partaidetza eta zuzendaritza: Korresponsabilitatea						
4.8						
4.9						
4.10						
4.11						
4.12						

BALORAZIO NUMERIKOAK BILTZEKO ORRIA

Aurreko taulen batezbesteko balioen esanahaia ulertu ahal izateko, MEC dokumentuaren testua aurrean, honako hauek dira proposamenen zenbaketan dauden korrespondentziak. Gauza bera gertatzen da datozen orrietan aipatzen diren proposamenen balorazioetan.

<i>XVII Topak.</i>	MEC dokum.	<i>XVII Topak.</i>	MEC dokum.
1.1	2.1	2.1	5.1
1.2	2.2	2.2	5.2
1.3	2.3	2.3	5.3
1.4	2.4	2.4	5.4
1.5	2.5	2.5	5.5
1.6	12.1	2.6	9.1
1.7	12.2	2.7	9.2
1.8	12.3	2.8	9.3
1.9	12.4	2.9	9.4
1.10	12.5	2.10	9.5.
1.11	12.6	2.11	10.1
		2.12	10.2
		2.13	10.3
		2.14	10.4
		2.15	10.5
<i>XVII Topak.</i>	MEC dokum.	<i>XVII Topak.</i>	MEC dokum.
3.1	13.1	4.1	11.1
3.2	13.2	4.2	11.2
3.3	13.3	4.3	11.3
3.4	13.4	4.4	11.4
3.5	13.5	4.5	11.5
3.6	3.2	4.6	11.6
3.7	1.1	4.7	11.7
3.8	1.2	4.8	14.1
3.9	1.3	4.9	14.2
3.10	1.4	4.10	14.3
3.11	1.5	4.11	14.4
		4.12	14.5

2. eranskina: MEC-REN TESTUAREN ERREDAKZIOARI EGINDAKO PROPOSAMENAK

2.1 En el segundo ciclo de la educación infantil, se impulsará la incorporación de un idioma extranjero. En las Comunidades Autónomas con lengua propia esta incorporación se hará de acuerdo con el proyecto lingüístico del centro. Se generalizará la enseñanza de un idioma extranjero en el primer ciclo de educación primaria. Se ofrecerá un segundo idioma extranjero en todos los centros docentes a partir del primer curso de la educación secundaria obligatoria.

Proposamena: "En las comunidades Autónomas con lengua propia..." lehen puntuan jarri.

2.4 Las Administraciones educativas facilitarán la incorporación e integración de las tecnologías de la información y comunicación a la práctica educativa. Se actualizarán los contenidos básicos de las distintas etapas educativas a la luz de las exigencias formativas generadas por la sociedad de la información y la comunicación en lo que se refiere en especial a: la adquisición de destrezas y habilidades relacionadas con la búsqueda, selección, análisis y organización de la información y el dominio funcional de las tecnologías de la información y la comunicación.

Proposamena: "facilitarán" hitzaren orde zerbait zehatzago adibidez "se comprometerán..."

2.5. El Ministerio de Educación y Ciencia, en colaboración con las Comunidades Autónomas, elaborará un plan de implantación de las tecnologías de la información y la comunicación que analizará las necesidades de equipamiento, de apoyo técnico especializado a los centros y de programas de formación del profesorado. Se desarrollarán planes y programas en colaboración con el profesorado, las empresas del sector y las editoriales para la elaboración de materiales didácticos en distintos soportes.

Proposamena: "analizará" hitzaren ondoan jarri " y pondrá los medios necesarios"

2.11 La enseñanza no confesional de las religiones se incluirá en los currículos de las áreas que se determinen, especialmente en los de geografía e historia, de filosofía y de educación para la ciudadanía.

Proposamena: "el conocimiento de las religiones" esaldia proposatzen da

3.4 Se establecerá un procedimiento, de acuerdo con las Comunidades Autónomas, que permita mejorar la tarea de coordinación y consulta (*) entre la Administración y los centros escolares encomendada al equipo directivo.

Proposamena: "toma de decisiones" ere azaldu beharko luke.

4.1 La formación inicial del profesorado se adaptará al nuevo modelo de grados y postgrados del espacio europeo de educación superior. En todo caso, el primer curso de incorporación a la carrera docente se realizará bajo la tutoría de profesores ya experimentados. El Ministerio de Educación y Ciencia y las Comunidades Autónomas garantizarán una oferta **suficiente** de formación continua para todos los docentes en ejercicio.

Proposamena: "suficiente" kendu.

4.2 El Ministerio de Educación y Ciencia negociará con los representantes del profesorado y con las Comunidades Autónomas un Estatuto de la Función Pública Docente que regule el conjunto de derechos y deberes de los profesores, defina los **perfiles profesionales adecuados para el servicio público educativo** y establezca los compromisos que se contraen y las condiciones en las que se desempeña la profesión.

Proposamena: "perfiles profesionales adecuados para la función docente"

4.3 El Ministerio de Educación y Ciencia, en colaboración con las Comunidades Autónomas, establecerá un nuevo modelo de carrera docente en la que, sin necesidad de que los profesores abandonen el nivel educativo en el que trabajan, puedan asumir **nuevas responsabilidades**. El sistema retributivo tendrá en cuenta este modelo. Por otra parte, se impulsará la **colaboración del profesorado de secundaria con las universidades** en el desempeño de funciones docentes a tiempo parcial. La **evaluación** de la práctica docente será fundamental para el desarrollo profesional del profesorado y tendrá **efectos retributivos**.

Proposamena: "nuevas responsabilidades" Zeintzu? Zer esan nahi du?

Kolaborazio hitzarekin zer esan nahi da? Ordu extrak?

Pizgarri ekonomikoak ebaluaketarekin uztartzeko datuak falta dira.

4.4 Las Administraciones educativas **velarán** porque los profesores reciban el trato, la consideración y el respeto que merecen en el desempeño de su tarea profesional. Asimismo, proporcionarán **asistencia** a los profesores que lo requieran por asuntos derivados del ejercicio de su labor docente.

Proposamena: "velarán" kendu. "Poner los medios" jarri

"asistencia" mota zehaztu

4.5 Los profesores que ejercen su trabajo en situaciones de **mayor dificultad** recibirán el apoyo necesario para mejorar sus condiciones de trabajo y los recursos que tienen a su disposición. Se valorará la dedicación durante un periodo determinado a grupos de alumnos o a centros de atención preferente.

Proposamena: "mayor dificultad" zehaztu

4.7 Las Administraciones educativas establecerán **procedimientos organizativos** en los centros que permitan que los profesores puedan tener una **mayor** dedicación a las tareas docentes en **condiciones adecuadas** y reciban el apoyo necesario en las demás tareas que se encomiendan a los centros educativos.

Proposamena: "procedimientos organizativos"-en ondoan baliabideak zehazteko parrafoa jarri.

"mayor" hitza kendu

"condiciones adecuadas" esaten denean zehaztu zer esan nahi den.

4.8 Las Administraciones educativas establecerán **modelos abiertos y flexibles** para el desarrollo de los proyectos educativos, en los que, entre otros asuntos, se recoja la forma en que cada centro se va a plantear la atención a la diversidad de los alumnos y su proyecto de convivencia. Asimismo, **los centros decidirán** sobre los criterios de elaboración de horarios, el agrupamiento de los alumnos y los otros aspectos contemplados en la programación general anual.

Proposamena: "modelos abiertos y flexibles" zehaztu

"La administración aportará recursos para que los centros puedan decidir dentro de un marco general"

4.9 Las Administraciones educativas favorecerán la introducción progresiva en los centros de **métodos de trabajo y organización a través de proyectos**, de manera que los recursos económicos, materiales y humanos, puedan adecuarse a estos proyectos, convenientemente evaluados y valorados.

Proposamena: "métodos... proyectos" Zer bultzatuko dute: lan metodoak edo proiektuak?

4.11 **El Ministerio de Educación y Ciencia**, en colaboración con las Comunidades Autónomas, establecerá planes de evaluación que contribuyan a la mejora del funcionamiento de los centros educativos.

Proposamena: "Las Comunidades autónomas en colaboración con el ministerio" erredakzio berria.
